

1. ERABILERA PLANAREN HELBURUA

- Herritarrekiko harremanetan euskara zerbitzu-hizkuntza izan dadin bermatzea, betiere herritarren hizkuntz eskubideak errespetatuz.
- Euskara beste administrazioekiko harremanetako hizkuntza izan dadin bermatzea.
- Euskara administrazio barneko lan-hizkuntza izan dadin bermatzea.

UEMAK onartuta dituen hizkuntza irizpideetara gerturatze bidean urratsak ematean hastea.

EGUNGO EGOERA, HELBURUAK ETA PROPOSAMENAK

1. HIZKUNTZA GAITASUNA

Ondorio nagusiak:

- Langileen hizkuntza gaitasunari dagozkion datuak onak dira oro har.
- Badira oraindik, ordea, DD ezarri gabe (5etik 2 egiaztatu gabe) duten lanpostu batzuk, eta baita DD ezarrita izanda egiaztatu gabe dutenak ere (4).
- Hutsik dauden lanpostu guztiek dute DD ezarrita.
- Azkenaldian, DD ezarrita duen lanpostu batera egiaztatu gabe bat sartu da.
- Lanpostu zerrendan egon ez arren, Udalerako lanean ari diren hainbat langile inongo hizkuntza eskakizunak egiaztatu gabe hasiak dira (informatika, etxez etxeko 2, udaltzain bat DDrekin, bi peoi)

Horiek horrela, hona hemen helburuak betetzeko hizkuntza gaitasunari dagozkionez proposatzen diren **aurrera begirako neurriak**:

- Zumaiako Udalean onartzen den hurrengo lanpostu zerrenda berrian geratuko diren lanpostu guztiei dagokien hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data ezartzea. Horretarako ezarri behar diren HE berriak egoki ezarriko direla ziurtatzeko HPSri lanpostu bakoitzeko txostena eskatuko zaio.
- Egun indarrean dagoen lanpostu zerrendako 24. etxez etxeko laguntzaile postuari eta brigadako 52 eta 53. peoi postuei DD ezartzea.
- Idazkariak aspaldi igarota du 4HE egiaztatzeko epea, egun 3HE egiaztatua du. 1998ko ekainaren 9ko Aginduaren arabera, 576 prestakuntza ordu beharko lituzke dagokion HE lortzeko. Dena den, HAEE IVAPeko taldeetan sartzeko egingo duten mailaketa probak zehaztuko du langile honek duen oraingo maila eta helburua lortzeko behar duen denbora. Horiek horrela, idazkariari 4HE egiaztatzeko prestakuntza jasotzeko proposamen zehatza egingo zaio eta harekin adosten saiatu. Dagozkion kreditu orduen kopurua adostuko da IVAPekin.

- Administrazio orokorreko teknikaria eta Partaidetza, migrazio, berdintasun eta gazteria teknikaria ere idazkariaren kasu berean daude, beraz, proposamena berbera izango da. Dena dela laster administrazio orokorreko teknikariaren lanpostua ateratzeko asmoa dagoenez eta DD ezarrita duenez, baloratu egingo dugu zenbateraino merezi duen behin behinean dagoen langilearekin lan horretan hastea.
- Ingurugiro teknikariaren EGA 3. hizkuntza eskakizunarekin baliokidetzeko tramitazioa abiatzea.
- Etxez etxeko bi lanpostutan errelebo kontratuan sartu direnei 1HE egiaztatzerako joateko proposamena egingo zaie, hasieran euskara teknikariek egindako prestakuntza motz baten ondoren. Bide horretatik egiaztatzen ez badute, kreditu orduak IVAPekin adostu eta prestakuntza jaso ostean egingo da bigarren saiakera.
- 42. udaltzainari, kreditu orduak aprobetxatuz, IVAPen ikastaroetan apuntatu eta 1HE atera bitarteko prestakuntza egitea proposatuko zaio. Eta oraintsu 44. udaltzaina agente lehenaren postuan dagoelako bere ordeztatu denari 2HEeko azterketara aurkezteko proposamena egingo zaio. Atera ezean, IVAPeko ikastaroetara bidaltzea aztertuko da.
- 52. peoiari, berriz, hasieran euskara teknikariaren laguntzaren bidez 1HE ateratzeko saiakera egitea proposatuko zaio, izan ere, 2HE egiaztatzerako aurkeztu da bi aldiz, baina ez du lortu. Lehenengoa ere egiaztatzen ez badu, IVAPen prestakuntza jasotzea proposatuko zaio.
- Horrez gain, eta Zumaiako euskararen ordenantzak dioena errespetatuz, hemendik aurrera udaleko edozein lanpostu betetzerakoan, lanpostuari dagokion euskara maila egiaztatzen egin beharko duela postua betetzera datorrenak. Hala behar izanez gero, euskara zerbitzuaren edo UEMAREN bidez, euskara proba egitea proposatzen da.

UDAL HAUTETSIEN HIZKUNTZA GAITASUNA

Ondorio nagusiak

- Gaur egun hautetsi guztiek euskaraz ez jakiteak lan zama handia dakar Udala funtzionamenduarentzako.

Datozen legegaldietara begira

- Alderdi politikoei hautetsi euskaldunak jartzeko gonbidapena.

2. AHOZKO JARDUNA

2.1. Erakundearen ahozko jarduna

- Erantzungailua ele bietan dago, euskara lehenetsita.
- Herritarrekin egiten diren 3 bilera iraunkorretatik bi euskaraz egiten dira eta hirugarrena (San Juan) ia gaztelania hutsean.
- Ekitaldi publikoetan batzuetan euskaraz egiten da eta beste batzuetan, aldiz, ele bietan. Irizpide falta nabari da.
- Udaleko batzorde informatibo guztiak, hirigintza eta ogasun izan ezik euskaraz egiten dira.

Aurrera begira **hartu beharreko neurriak:**

- Erantzungailua bere horretan uztea.
- Ekitaldi publikoak euskaraz egitea. Lehen agurra eta amaierakoa beti euskaraz, eta azalpenak gaztelaniaz eman behar direla erabakitzen denean, nabarmen euskarari lehentasuna emateko, gazteleraz euskaraz esaten denaren laburpena egitea proposatzen da.
- Herritarrekin batera egiten diren bilera iraunkorrak euskaraz egiten direnak horrelaxe egiten jarraitzea, eta San Juan egoitzakoak euskaraz ere egiteko neurriak proposatzea.
- Gainerako bileretarako irizpideak berriak onartzea:
 - o Bilerara deituak direnetatik gehiengo nabarmena euskalduna denean, bilera euskaraz egitea.
 - o Bilerara euskara ulertzeko gai ez den jende dezente (%25etik gora) dagoenean, bilera euskaraz egitea eta laburpenak itzuliko dituen norbait ziurtatzea.
 - o Bilerara euskaldunak zein erdaldunak kopuru berdinetan deitzen direnean, bi bilera egitea: bata euskara hutsean, eta bestea, agurrak eta ohiko hitz ulergarriak euskaraz eginez eta gainerakoa gazteleraz (herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatzera begira).
- Barne harremanetan, euskaraz egiten diren udaleko batzorde informatzaileak euskaraz egiten jarraitzea (2008 euskara ordenantza 16. artikulua 1. puntua).
- Hirigintza eta Ogasun batzordeak euskaraz egiten hastea, euskaraz ulertzen ez duen zinegotziari batzordeburu eta teknikariak esan denaren laburpenak eginez.
- Osoko bilkurak euskaraz egiten jarraitzea (itzultzailearekin).

2.2. Planaren eraginpeko langileen ahozko jarduna

Ondorio nagusiak

- Harreran eta telefonoz euskaraz egiten dute lehen hitza langile guztiek.
- Jendaurreko ekimenetan, gehienbat euskara erabiltzen badute ere %40 inguruk bi hizkuntzak erabiltzen dituela aitortzen dute. Hizkuntza irizpideen falta nabari da, azken finean, langilea bera izaten baita askotan zein hizkuntza erabili erabakitzen duena.
- Langileen lan bilerak euskaraz izaten dira, San Juan egoitzakoak izan ezik, haiek gaztelaniaz egiten dituzte bilerak ia beti.
- Langile eta hautetsien arteko ohiko hizkuntza euskara da gehienetan, baina gaztelania ere erabiltzen da.
- Langileen arteko harreman ez informaletako hizkuntzan gaztelaniak presentzia handia du (datuetan aitortzak hainbestekoa ez dela badio ere).

Aurrera begira hartu beharreko neurriak:

- Bai telefonoz bai ahoz lehen hitza euskaraz egiteko erabakia hartu eta langileei jakinaraztea.
- Udal langileek Udalaren izenean hitz egin behar duten kasuetarako hizkuntza irizpide argiak zehaztea eta langileei jakinaraztea. Ondoren, jarraipenerako bitartekoak jartzea.
- Langileen arteko bilerak euskaraz izan behar dutela gogoraraztea. Izan ere, Zumaiako Udalaren helburu mailakatuaren arabera, Udaleko lan hizkuntzak euskara behar du izan.
- Langileen arteko harreman horietarako zein harreman ez formaletarako duten hizkuntza ohituren aldaketan eragiteko neurriak hartzea.
- Udal hautetsiekin langileek euskaraz hitz egiteko dute betebeharra gogorarazi, eta dituzten ohitura txarrei aurre egiteko sentsibilizazio lana egitea.

3. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA

3.1. Erakundearen idatzizko jarduna (616 dokumentu aztertuta)

a. Kanpo harremanak

Ondorio nagusiak

- Herritarrei begirako dokumentu gehienak ele bietan ateratzen dira. Baina badira gaztelania hutsean ateratzen direnak ere.
- Ele bietan ateratzen diren dokumentuen artean ez zaio beti euskarari lehentasunik ematen. Irizpide falta izugarria nabari da, batik bat administrazio atal batzuetan.
- Beste erakunde publikoekiko harremanetan ere, gehienbat ele bietako ereduak erabiltzen dira, baina bi ataletan adibidez aztertu diren dokumentu guztiak gaztelaniaz daude.
- Herriko elkarteekin harremanetarako erabilitako dokumentuak euskaraz daude.
- Enpresekin gehienbat ele bietan izaten dira harremanak, baina dokumentuen %20 inguru gaztelania hutsean aurkitu dugu. Datu horiek ez dira asko aldatzen kontratua dugun enpresetatik ez dugunetara.

Aurrera begira **hartu beharreko neurriak:**

HERRITARREI BEGIRA,

Lehenik eta behin, Zumaiako Udalak onartuta duen Euskararen ordenantza betetzen dela bermatzeari begirako neurriak hartzea proposatuko da, izan ere, horiek ere ez baitira betetzen osotasunean gaur egun. Hortik abiatuta, euskarari presentzia handiago ematen hastea izango dugu helburu, plan honen epealdi amaierarako. Hona hemen ordenantzan kanpo harremanetako idatzizko jardunari buruz dioena:

20. artikulua. Oharrak, argitalpenak eta komunikabideekiko harremanak

Udalaren bandoak, araudiak, ordenantzak eta erabaki ofizial guztiak bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira, eta euskarazkoak lehentasun izango du.

Komunikabideetan argitaratzen diren iragarkiak euskaraz emango dira eza gutzera lehentasunez, eta gaztelania erabili behar denean euskarazko mezua lehenetsiko da.

Publizitatea egiteko garaian euskarazko hedabideak kontuan hartuko dira. Era berean, euskarazko herri-hedabideekin hitzarmenak egingo dira diru-laguntzak bideratzeko xedez.

- Hartzaile jakinik gabeko ohar, bando eta antzeko agiriak datozen hiru urtetan, ele bietan jarriko dira, euskarari nabarmen lehentasuna emanez. Ele bietako testuak idazteko irizpideak zehaztu egingo dira.
- Udala ez da inongo administrazio ataletatik herritarrari gaztelania hutsean zuzenduko. Herritarrak euskaraz badakiela dakigunean, euskaraz zuzenduko gatazka eta gainerakoetan ele biz, baina euskarari lehentasuna emanez beti ere.
- Euskaraz zuzentzen gatazka herritarren kopuruak gora egiteko helburuz, Udalak berarekin harremanak ele biz izan nahi dituen herritarren errola osatzea aztertuko da.
- Herritarrentzako erabiltzen diren inprimaki eredu guztiak moldatu egingo dira. Eredu guztiak euskara hutsean eta ale bera ele biz jarriko dira. Hala

herritarra datorrenean euskarazko alea emango zaio, eta gaztelaniazkoa nahi duela eskatzen duenean, ele bietakoa.

- Udal langileek betetzen dituzten inprimakiak euskaraz beteko dira. Herritarra erdaldun ele bakarra dela jakinekua denean edo hark horrela eskatzen duenean ele biz.
- Etorkinei zuzendutako inprimakiak hizkuntza bat baino gehiagotan izateko saiakera egingo dugu. Eta etorkina datorrenean euskaraz eta itzulpenak ditugunetatik gertuen sentitzen duen hizkuntza emango zaio inprimakia. Horretarako Udalak dituen datuen arabera, dauden hizkuntza nagusienak ikusi eta horietara egingo dira itzulpenak.

BESTE ADMINISTRAZIOEKIKO HARREMANETAN erabili beharreko hizkuntza ere arautua eta onartua dago Zumaiako Udalean Euskararen ordenantzaren bidez. Hala dio:

7. artikulua. Erakundeekiko harremanak.

Euskara ofiziala den eremuan dauden beste Administrazio Publikoei nahiz erakunde ofizialei zuzendutako dokumentazioa euskaraz edo ele bietan euskara lehenetsita bidaliko du Zumaiako Udalak. Beste Administrazio Publikoek nahiz erakunde ofizialek Zumaiako Udalari Zuzendutako dokumentazioa, euskara ofiziala den eremutik datorrenean, euskaraz irits dadin eskatuko du Udalak.

- Onartutako irizpidea modu honetan betetzea proposatzen da:
 - o Administrazio atal guztietatik Euskal Herrian kokatuta dauden (nahiz bertakoak izan, nahiz estatukoak izan) administrazioetara euskara hutsean bidaliko dira idazki guztiak.
 - o Aldizkari Ofizialean argitaratu beharreko dokumentazioa euskaraz bidaliko da, hala hitzartua du UEMAk Aldizkari Ofizialarekin eta haien esku geratzen da dokumentu horien itzulpena.
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin haren 2004ko martxoaren 8ko 21/04 Foru dekretuak baimentzen duenari jarraiki, harremanak euskaraz izan daitezen saiakera egingo da. Udaletik hara bidalitako euskara hutsez bidaliz, eta Aldunditik datorrena ere euskara hutsez bidaltzeko eskatuz.
- Eusko Jaurlaritzarekin Foru Aldundiarekin egin den antzeko zerbait egitea helburu hartuta, administrazio atal bakoitzaren azterketa zehatza egitea proposatzen da aurrez, Jaurlaritzan bertako atal bakoitzaren arabera harreman motak ezberdinagoak direlako.
- Euskal Herritik kanpo dauden erakunde publikoetara dokumentuak ele bietan bidaliko dira.

ELKARTE ETA ENPRESEKIKO HARREMANETAN, Udalak bere irizpideak argitzea proposatuko dugu.

- Elkarteei euskaraz zuzenduko gatzaizkio beti. Elkarteren batek zuzenean Udalarekiko harremanak gazteleraz ere nahi dituela esatekotan, ele biz zuzenduko gatzaizkio. Elkarteen hizkuntza errolda egitea proposatzen da.
- Udalak hitzarmena duen enpresa batekin dituen harreman guztietan Udalak euskara erabiliko du.
- Gainerako enpresekin euskara erabiliko du, baina harremanak gazteleraz ere nahi dituela eskatzekotan, ele biz zuzenduko zaio Udala enpresa horri.

b. Barne harremanak

Ondorio nagusiak

- Dekretu gehienak ele bietan egiten dira, batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelania hutsean. Gaiaren eta administrazio atalaren arabera da. Irizpide falta.
- Barne zirkularrak gutxi jaso dira, eta jasotakoak euskara hutsean dauden udaltzaingokoak izan ezik. Horiek gehienak gaztelania hutsean daude (ia erdiak).
- Pertsonal dokumentuak %79 euskaraz eta gainerakoak ele bietan (nomina eredia, kontratu bat).
- Bilera dei eta akta gehienak euskaraz daude, baina atal batzuetan gaztelaniaz jaso eta euskara itzulita, ele bietan banatzen dira.
- Txostenei dagokionez egoera oso ezberdina da atal batetik bestera. Atal batzuk ia bere osotasunean euskaraz egiten dituzte txostenak eta beste batzuk aldiz, apenas.
- Jaso diren memoriak euskaraz dauden San Juanekoa izan ezik, hori gaztelaniaz dago.
- Aurrekontuetatik eratorritako dokumentuak, berriz, ele bietan daude gehienak.

Aurrera begira proposatzen diren neurriak:

- Dekretuak euskaraz egitea, eta dekretuen jakinarazpenak ele bietan egin behar diren kasuetarako itzuli behar den zatia itzultzea.
- Bileretako dei guztiak euskaraz egitea euskaraz badakiten hautetsiei eta ele bietako bertsioa euskaraz ulertzen ez dutenei baino ez ematea.
- Udal langileei zuzendutako barne zirkularrak euskara hutsean bidaltzea. Euskaraz ulertzen ez duen langileari ezer helarazi behar bazaio gaztelaniazko laburpenaz lagunduta.

- Lan kontratuak euskara hutsean egitea. Horretarako prestatutako ereduak emango zaizkio horretaz arduratzen den langileari.
- Nominak euskaraz egotea. IZFEtik egiten badira, euskaraz beteta; eta bestela nomina eredu egokia emango zaio horretaz arduratzen den langileari eta eredia bera ere euskaraz egongo da.
- Barne harremanetako txostenak euskaraz sortzen diren ataletan horrela egiten jarraituko da. Gainerakoetan, txostenak egiten dituzten langileekin hitz egingo da euskaraz sortzen ez diren txostenak hala egiteko arrazoiaren inguruan eta euskaraz egiten hasteko bideak proposatuko dira.
- San Juan egoitzako langileekin erabiltzen dituzten txosten barne harremanetako txosten zein memoria eta antzekoak euskaraz egoteko eragozpenen inguruan hitz egingo da, eta pixkanaka-pixkanaka euskararen presentzia areagotzeko neurriak hartzea proposatuko zaie.
- Kontu-hartzailletza ez beste atal guztiei aurrekontu dokumentu ereduak emango zaizkie euskaraz eta hala erabiltzeko jarraibideak ere bai. Kontu-hartzailletzan, berriz, ele biz egiten den dokumentuak ikusi eta kopurua jaisteko bitartekoak jartzeko saiakera egingo da.

SARRERA ERREGISTROA

Ondorio nagusiak

- Herritarrak gehienbat euskaraz zuzentzen zaizkio Udalari.
- Erakunde publikoak, berriz, gehienbat ele bietan, baina badira erakunde batzuk bereziki gaztelania hutsa erabiltzen dutenak ere.
- Enpresa pribatuak, berriz, ia beti gaztelaniaz.

Proposatzen diren neurriak:

- EAEko beste administrazio publiko nahiz erakunde ofizialengandik jaso beharreko dokumentazioa gutxienez euskaraz ere jasotzea onartzeko irizpide nagusia jarraituko da beti.
Horrenbestez, horietakoren batek hala jokatu ezean —hau da, gaztelania hutsezko agiriak bidaliz gero—, igorleari itzuliko zaizkio kasuan kasuko dokumentuak. Dokumentu motaren arabera jarraitu beharreko prozedura eranskinetan (Eranskina 6) gehituko da.
- EAEko lurralde esparruaren barruan kokatutako Estatuaren eta honen menpeko administrazioetarako komunikazio administratiboak ere euskaraz jasotzeko ahalegina egingo da. Administrazioetatik gaztelera hutsean jasotako idazkiak bueltatu egingo dira -dokumentu motaren arabera jarraitu beharreko prozedura eranskinean (Eranskina 6) gehituko da- gutun batekin batera. Gutun hori euskaraz eta gaztelera egongo da idatzita eta,

euskararen aldeko diskriminazio positiboaren izenean, adierazpen administratiboak euskaraz ere jaso nahi direla adieraziko da. Aipatu esparruz kanpoko gainerakoei administrazioekin Udalak zehaztuko du nola jokatu.

- Enpresa pribatuei ere, Udalak harremanak euskaraz izan nahi dituela jakinaraziko zaie lehenik, eta aurrerantzean jasoko diren dokumentu guztiak euskaraz behintzat jaso nahi direla eskatuko zaie. Hortik aurrera, gaztelania hutsez bidaltzen dituzten dokumentuak bueltan bidaliko zaizkie, euskaraz ere jaso nahi direla esanez.

3.2. Planaren eraginpeko langileen idatzizko jarduna

Ondorio nagusiak

- Langileen ia erdiek dokumentuak euskaraz sortzen dituztela beti aitortu dute, %30 inguruk batzuetan euskaraz eta besteetan gazteleraz eta gainerakoek gaztelaniaz.
- E-maila bidezko harremanetan gehienbat euskara erabiltzen dute langile gehienak, baina hori hartzailearen arabera izaten da ia beti, beraz, gaztelania hutsezkoak ere aurkitu dira.

Aurrera begira hartu beharreko neurrien proposamenak:

- Hiru urtera, Udalean produkzio idatzia duten langile guztiek euren dokumentuak euskaraz sortzea, izan ere, langileek duten hizkuntza gaitasuna kontuan hartuta, atera diren datuak nahiko kezagarriak baitira. Horretarako, oraindik dokumentuak gaztelaniaz sortzen dituzten langileekin horretarako dituzten arrazoen azterketa bat egingo dugu, eta horren arabera trebakuntza saioak proposatzea ez da bazterten.
- Elkarte eta enpresa pribatuen kasuan, ahal dela, euskarazko mintzakideak identifikatu eta lehentasunezko kontaktu gisa zehaztea izango da proposamena. Euskaraz bizi nahi duen Udal batek eskubidea du lana euskaraz egitea galaraziko ez dioten mintzakide euskaldunak eskatzeko.
- Mezu laburrak diren heinean, gaztelania hutsean mezurik ez bidaltzea. Ahal dela, gutxienez, ele bietan bidaliko dira mezu guztiak.

4. ITZULPENAK

Ondorio nagusiak:

- Zumaiako Udalaren itzulpen kopurua oso handia da.
- Administrazio atalen arabera datuak dezente aldatzen badira ere, argi ikusten da ez dagoela itzulpen irizpide argirik udal langileentzat. Gainera, itzulpenak egin beharrak langileei beraiei ere lan zama handia eragiten die.

- Badira langile batzuk euren dokumentuak Euskara Zerbitzura zuzentzera bidaltzen dituztenak.

Aurrera begira hartu beharreko neurriak:

- Itzulpen kopurua jaitea, eta egiten diren itzulpenak euskaratik gaztelerara izatea.
- Oraindik gazteleraz sortzen duten langileak poliki-poliki euskaraz sortzen hasiko direnez, epe batean langile horien dokumentuak zuzentzeko aukera emango zaie, hala gainera, dokumentuz zuzen aterako dela jakinda, euskaraz sortzen hasteko eragozpenak jaitsi egingo direla uste dugu.
- Euskaraz sortzen duten langileek pixkanaka autonomia hartzen joatea jarriko dugu helburu gisa, horretarako behar duten trebakuntza eskainiz.
- Horretarako:
 - o Udalaren itzulpen irizpideak zehaztuko dira atalez atal (zein kasutan egingo diren itzulpenak, zeinek egingo dituen itzulpenak e.a.)
 - o Behar duten edo hala eskatzen duten langileei trebakuntza emango zaie, batik bat zuzenketak jaisteari begira.
 - o Dokumentu batean jasoko da atalez atal itzulpen zein zuzenketak egiteko bete beharko dituzten jarraibideak.

5. LANGILEEN PRESTAKUNTZA OROKORRA

PRESTAKUNTZA OROKORRA

- Udal langileek jasotzen dituzten ikastarorik gehienak gaztelania hutsean eskaintzen zaizkie, eta ez da horren inguruko neurririk hartzen. Behin hartu zen (Fremap) baina ez zen ikastaroa euskaraz ere izatea lortu.

Aurrera begira proposatzen diren neurriak:

- Udalak antolatzen dituen prestakuntzek euskaraz izan behar dute. Horretarako kontratazioetan hizkuntza irizpideak sartzea oso garrantzitsua da. Prestakuntza antolatzerakoan, Euskara Zerbitzuari laguntza eskatzeak asko erraztuko luke bidea, hala prestakuntza kontratatzerakoan zein hizkuntza irizpide sartu gomendatuko luke Euskara Zerbitzuak.
- Udalak langileentzat prestakuntza saioen bat antolatzen badu, euskaraz izan dadin bideak jorratuko ditu (irakasle euskalduna...).
- Kanpotik Udalera datorren edozein prestakuntza eskaintzen artean, hizkuntzaren xehetasunak ezagutzeko bidea jarriko da. Eta beste baldintzekin batera hizkuntzarena ere kontuan hartuko da ikastaroa egin ala ez erabakitzerakoan.

- Kanpotik gaztelania hutsez eskaintzen diren ikastaroen aurrean, udalak ikastaro hori bera euskaraz ere nahi duela eskatuz, gutuna igorriko dio erakunde antolatzaileari.
- UEMAREN bidez, erakunde publikoetatik egiten den eskaintzan euskarazko ikastaroak gehitu daitezzen harremanak jorratuko dira.

HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA ETA TREBAKUNTZA

Ondorio nagusiak

- Hirigintza sailarekin lanketa berezia egin da.
- 10 langilek 12 orduko trebakuntza saioa jaso zuten aurten (UEMA)
- Euskara zerbitzuaren bidez "Hain xuxen" buletinean e-posta bidez trebakuntza bideratzen da.

Aurrera begira hartu beharreko neurriak:

- E-posta bidezko trebakuntzarekin jarraitzea.
- E-posta bidezko trebakuntzan parte hartzen duten langileen jarraipena egiteko nolabaiteko sistema proposatu nahi da.
- Hizkuntza gaitasunean zehazten dira hizkuntza prestakuntza eta trebakuntzarako aurrera begirako gainerako proposamen orokorrak.

6. TRESNA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOAK

Ondorio nagusiak

- Sistema operatiboa eta bulegotika gaztelaniaz instalatuta daude udal ordenagailu ia guztietan.
- Langileek erabiltzen dituzten aplikazio informatiko gehien gehienak ere gaztelania hutsean daude.
- Urrats positibo gisa aipatzekoa da MUNIGEX euskaraz jarri dela, eta udalaren kudeaketako hainbat esparru hartuk dituela aurki.
- Tramitazio telematikoen kasuan euskaraz erabili ahal izateko arazoak ditugu Gizarte Segurantzaren Red sistemarekin eta IZFEko hainbat aplikaziorekin.

Aurrera begira hartu beharreko neurriak:

- Udal ordenagailuetan ezartzen diren aplikazio informatikoak euskaraz instalatuko dira, horretarako aukerarik badago behintzat.

- Udal ordenagailu guztietan sistema operatiboa euskaraz jartzeko plangintza egin eta euskaraz jarriko dira.
- Gaztelania hutsez dauden bulegotikako aplikazio guztiak, OFFICEak kasu honetan, euskaraz jartzeko lan bolumena aztertuko da, eta epeka-epeka euskaraz jarriko dira.
- Une honetan instalatzen ari diren MUNIGEX aplikazio informatikoak, euskaraz dagoenez, pixkanaka egun gaztelaniaz dauden beste aplikazio batzuk ordezkatu behar ditu (sarrera irteerak, Knosys...)
- Fitxatzearen jarraipena egiteko erabiltzen diren SCPWIN 2.0 eta TP 6000 aplikazio informatikoen antzekoak, baina euskaraz daudenak bilatuko dira merkatuan, eta aplikazioa ordezkatzeko aukera aztertuko da.
- GANES aplikazio informatikoa gaztelaniaz instalatuta dagoen arren, aukera ematen du euskaraz jartzeko, beraz, berehala aldaketa hori egingo da.
- Hirigintzan erabiltzen diren aplikazio informatikoak (autocad-map, presto, air viewer...) instalatu aurretik euskarazkorik ba ote dagoen kontuan hartuko da, eta egotekotan euskarazkoak instalatzea lehenetsiko da.
- IZFERen zerbitzuaren azterketa egingo da, argi eta garbi ikusteko zeintzuk lan euskaraz egiteko aukera ematen duen eta zeintzuk egin behar diren nahi eta nahi ez gaztelaniaz. Horko emaitzen arabera, aukera ematen duten guztiak euskaraz erabiliko dira Zumaiako Udalean, eta horretarako prestatuta instalatuko dira. Gainontzean, Udalak IZFERi bere zerbitzuak euskaraz ere eman ditzan neurriak hartzeko eskatuko dio, bere kasa edo UEMAKo gainerako udalekin elkarlanean.
- Gizarte Segurantzaren RED SISTEMAK euskaraz lan egiteko dituen eragozpenak kontuan izanda, UEMA hornitzaileen lanketaren barne Gizarte Segurantzarekin izaten ari den harremanen ondorioen zain egongo gara.
- Gainontzean, Udalak harreman telematikoa duen erakunde bakoitzarekin harremanetan jarriko da, baldin eta dauden harreman horiek euskaraz lan egitea eragozten badiote. Kasu horietan, udalak euskaraz lan egiteko erabakiaren aurrean, udalari eskaintzen dizkieten zerbitzuak euskaraz erabili ahal izateko neurriak hartzeko eskatuko du Udalak.

7. INTERNET ETA INTRANET SAREAK

Ondorio nagusiak

- Udalaren webgune ofiziala ele bietan dago erabilgarri, baina euskaraz irekitzen da defektuz.
- Mugitzaile zerbitzuko web gunea aztertu da, Udalaren zerbitzu baten berri emateko orria delako, eta ele bietan dago, baina bertako inprimakietan gaztelaniari lehentasuna ematen zaio.

Aurrera begira **hartu beharreko neurriak:**

- www.zumaia.net orrialdean eduki guztiak euskaraz egotea bermatuko da.
- www.mugizumaian.com orrialdeko inprimakian euskara lehenesteko eskatzeko enpresa kudeatzaileari.
- Orrialde biak euskaraz nabigatzailea euskaraz dagoen kasuetan euskaraz irekitzea bermatzea. Eta nabigatzailea beste hizkuntzaren batean dagoenean, lehen pantailan hizkuntza hautua egiteko aukera izatea bermatzea.

8. ARGITALPENAK

Ondorio nagusiak

- Udalaren aldizkari nagusia ele bietan ateratzen da eta euskarari lehentasunezko trataera ematen zaio.
- Urtero ateratzen diren egutegi eta festetako programak ele bietan ateratzen dira, bi hizkuntza maila berean. “Dena itzuli behar da” pentsamendua nabari da.
- Oro har argitalpen gehienak ele bietan ateratzen dira, baina hizkuntza trataerarako irizpide falta nabari da.
- Beste erakunderen baten argitalpenak erabiltzen direnean ia beti ele bietan egoten dira.

Hartu beharreko neurriak:

- Euskaraz egiten diren argitalpenak bere horretan egiten jarraitzea.
- Jaietako programa euskaraz argitaratzea, eta gaztelaniazkoa laburpen gisa beste orri batean banatzea (biak batera). Edo gutxienez, programan euskarari lehentasun nabarmena ematea. Zer itzuli eta zer ez aztertuko da.
- Egutegiekin ere zer itzuli eta zer ez aztertuko da, euskarari lehentasuna emanez. Hala ulerterrazak diren hitzak euskara hutsean jartzeko konpromisoa hartuko da gutxienez.
- Atalez atal ele bietan egingo diren argitalpenen ezaugarriak zehaztea, eta ele bietan egiten diren guztietan euskarari lehentasuna ematea.
- Beste erakundeek diren argitalpenak gutxienez ele biz iristen direla bermatzeko neurriak hartzea.
- Beste erakundeek argitalpenak erabiltzen hizkuntza irizpideak zehaztea.

9. HIZKUNTZA PAISAIA

Ondorio nagusiak

- Udalaren irudia diren adierazle orokorretatik gehienak euskara hutsean daude edo ele bietan.
- Udalaren eraikinetako errotulazio finkoa ia bere osotasunean euskara hutsean dago.
- Informazio mahai eta paneletan egoten dira batzuetan gaztelania hutsezko agiriak.
- Segurtasun tresnen errotulazio gaztelaniaz dago bere osotasunean.
- Bulego barruetan oraindik badago gaztelania hutsean dauden karpeta eta artxibadoreen presentzia.

Aurrera begira hartu beharreko neurriak:

- Euskararen ordenantzan onartua dagoena errespetatzen hasia lehenik eta behin.
- Jartzen den errotulazio berria euskaraz jartzea.
- Segurtasun tresnak hornitzen dituen enpresari tresneria euskaraz errotulatzea eskatzea, eta bestela euskaraz errotulatzen dituzten enprekin harremanetan jarri eta segurtasun tresnen errotulazioa aldatzea aztertzea.
- Unean-unean jartzen diren egutegi, horma irudi eta antzekoak gutxienez ele bietan daudenak jartzea.
- Informazio panel eta taulan jarri beharreko dokumentazioarekin zein irizpide erabili zehaztea.
- Bulego barruetan dauden gaztelania hutsez errotulatutako artxibadoreen hizkuntza aldatzen hasia.
- Mugi bizikleta zerbitzuko pantailan euskara lehenestea.

10. IRAGARPEN, PUBLIZITATE ETA KANPAINAK

Ondorio nagusiak

- Prentsa oharrak ele bietan bidaltzen dira.
- Iragarkiak euskaraz edo ele bietan bidaltzen dira, komunikabidearen arabera.

Aurrera begira hartu beharreko neurriak:

- Gaiaren arabera, zeintzuk prentsa ohar bidali euskaraz eta zeintzuk ele biz erabakitzea.
- Iragarkiekin orain arte bezala jarraitzea.

11. DIRU LAGUNTZAK

Ondorio nagusiak

- Kultur eta kiroletako diru-laguntzetan aintzat hartzen da hizkuntza.

Aurrera begirako neurriak

- Udalak ematen dituen diru-laguntzetan, gizarte ongizatekoetan izan ezik, hizkuntza baldintzak kontuan hartzea, eta horretarako baldintzarik atera behar den kasuetan euskara klausulak txertatuta ateratzea (Euskara zerbitzuari gomendioa eskatuz).

12. KONTRATAZIOAK

Ondorio nagusiak

- Udalari zerbitzua ematen ari diren enpresen artean asko dira bai ahoz bai idatziz zerbitzu gazteleraz ematen duten enpresak.
- Udalak kontratua duen enpresen azterketa izateko, kontratu eta baldintza pleguetan euskara baldintza falta nabari da.
- Euskara baldintzak sartzen diren kontratazioetan ere, beti jarraipena ez dela egiten ikusten da.
- Udalak dituen ohiko hornitzaileekin ere ez da lortzen beti ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izatea.

Aurrera begira hartzeko proposatzen diren neurriak:

- Indarrean dauden kontratazio guztien azterketa egitea:
- Baldintza pleguen bidez hizkuntza irizpideak ezarrita dituzten enpresekin eta betetzen ez dituztenekin harremanetan jarri eta neurriak hartzea proposatzea.
- Pleguen bidez hizkuntza irizpiderik ezarri ez zaienekin bilerak egin, eta Zumaiako Udalaren hizkuntza helburuak azalduz bien arteko hizkuntza harremanak betetzera gonbidatzea.
- Edozein kontratazio egin aurretik, edo hornitzailearen bat aukeratu aurretik ziurtatuko da enpresak edo norbanakoak eman behar duen zerbitzua euskaraz emateko gai dela.
- Zuzeneko kontratazioetan, kontratuan hizkuntza klausulak gehituko dira.

- Euskaraz lan egingo duen enpresa edo norbanakorik ez dagoela ziurtatzeko, eskura dauden profesional euskaldunen zerrendak begiratuko dira.
- Baldintza pleguen bidez egiten diren kontratazioetan, bai baldintza pleguetan bai kontratuetan gehituko dira euskara klausulak (bai zerbitzua herritarrari zuzenean eman behar zaion kasuetan, baina baita udalari eman behar zaionetan ere). Hori ziurtatu behar dela egiaztatu beharko du pleguak diseinatzen dituen langileak. Eta baldintzetan txertatzen diren klausula horiek egokiak direla ziurtatzeko, baldintzak publikatu aurretik Euskara Zerbitzutik pasatzen direla ziurtatzea proposatzen da.
- Kontratu guztiak euskaraz sinatuko dira, kontratatuak gaztelaniaz sinatu nahi izanez gero, ele biz. Eta horrela egin beharko duela jakinaraziko zaio hala dagokion langileari. Horretarako arazoren bat bada, euskarazko kontratu ereduak jarriko dira langile horren esku eta behar duenerako Euskara Zerbitzuko laguntza ere izango du.

UDALAREN HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Ondorio nagusiak

- Gaur egun Udalaren hizkuntza irizpideak nolabait zehazten dituen dokumentu bakarra Euskararen udal ordenantza da.
- Ordenantza horretatik abiatuta hainbat esparrutako irizpideak zehaztu gabe dauden ondorioztatzen da.
- Datu bilketan eginda esparru bat baino gehiagotan ikusi dugu hizkuntza irizpideen falta edo ezagutza falta badagoela.

Horiek horrela, zera **proposatzen da aurrera begira:**

- Udal jarduerari dagozkion hizkuntza irizpideekin (2008ko ordenantzan zehazten direnetan oinarritu eta haiek osatuz) “Udalaren jardunerako hizkuntza irizpideak” dokumentua osatu eta osoko bilkurak onarpena ematea.
- Langile bakoitzari jarraitu beharreko irizpideak zehaztu eta betetzen diren jarraipena egingo dion arduradun bat izendatzea.